

Sindikatuerei hilabetez negoziatzeko aukera ukatu arren, gatazka presaka itxi nahi izan du Hezkuntza Sailak

Gaur EAEko irakasleen mahai negoziatzailea bildu da. Mahaia bildu arte Hezkuntza Sailak aurrera eramandako prozedura erabat desagokia izan dela adierazi nahi du LABek. Hasteko, hilabete pasa da azken mahai negoziatzailea bildu zenetik; bestetik, gaurko bileraren berri prentsaren bidez izan zuen LABek asteartean, eta irakasle eta sindikatuetikiko errespetu falta argia da; azkenik, mahaia hasi baino lau ordu lehenago jaso dute sindikatuak idatzizko azken proposamena. Hortaz, negoziazio eraginkor bat gauzatu ahal izateko ez da abiapuntu egokia.

Proposamenari dagokionez, Hezkuntza Sailak aldagai berri gutxi batzuk txertatu baditu ere, LABek ez ditu nahikotzat jotzen. Are gehiago, neurri horietako batzuetan atzerapausoak daude; hala nola, gazteberritzerako atalean aurretik jasotako lizentziak 3 hilabete gutxiagoko iraupena izango luke. Bestalde, LABentzat funtsezkoak diren baliabideetan ez da hobekuntza eta zehaztapen nabarmenik jasotzen; euskara indartzeko figuren inguruan, adibidez. Azkenik, soldatari dagokionez, Hezkuntza Sailak martxoaren 24aren ondoren publiko egindako aurreakordio proposamenean eskainitako baldintzarik gabeko %6ko igoera ez da jasotzen; izan ere, proposatutako igoeraren zati handiena BPGri lotu dio.

Sailak proposamen berriaren azalpenak eman ditu, eta sindikatu guztiak entzun ondoren, bi orduko etenaldia proposatu du 17:00 aldera, 19:30ean sindikatuen ekarpenekin dokumentu berria prestatu eta beste mahai bat egiteko. Jaso beharreko idatzizko proposamen berria aztertzeke denbora nahikorik ez zegoela iritzita, sindikatuak mahaia ostiralera atzeratzeko eskaera egin diote, eta sailak onartu egin du.

Aste honetan akordioa lortu arte aulkian iltzatuko direla adierazi du Pedrosa sailburuak. Torlojuak baino, proposamen zehatzak behar dituzte langileek.

Argi dago irakasleek egindako mobilizazio eta greba dinamikaren jarraipen zabalak, batetik, eta larunbateko manifestazioetarako hezkuntza komunitatearen atxikipen andanak, bestetik, eragina izan dutela Hezkuntza Sailak eman dituen pausoetan; mugitzera behartu dute.

LABek negoziatzen eta mobilizatzen jarraitzeko borondate irmoa dauka 15 urteren ondoren akordio arautzaile (hitzarmen) duina lortu arte.